

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauetako edozein erabilita: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, baikara@baikara.org helbidera idatzita.

1.- TESTU LIBURUAK

Oraindik ez dute argitara eman 2008-09 ikasturtean testu liburuen mailegu sistema arautuko duen dekretu berria. Berrikuntza bakarra sistema hori ezartzeko prozesuari dagokio. Artean erabaki gabe dagoen arren, baliteke datorren ikasturtean sistema hori Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (3. eta 4. mailetan) soilik ezartzea (lehenengo zikloan 07-08 ikasturtean ezarri zuten), eta ez Lehen Hezkuntza osoan, hasieran bestela aurreikusi bazen ere. Aldaketa horren arrazoi nagusia euskal curriculum berria ezartzeko prozesua da; curriculum bigarren zikloan 08-09 ikasturtean ezartzea da asmoa, eta 09/10 ikasturtean, hirugarren zikloan. Hortaz, ez da bidezkoa ikusten testu liburuen mailegu sistema hirugarren zikloan une honetan ezartzea; izan ere, sistema indarrean ezartzeko liburu berriak erosi beharko dira, eta, curriculum berria ezartzen denean, 2009-10ean, seguru asko aldatu egin beharko dira liburuak. Gai honi buruz zer erabakitzen den jakin bezain laster zuekin harremanetan jarriko gara.

2.- IKASLEAK ONARTZEA / MATRIKULAZIOA

Ikasleak onartzeko dekretu berriari jarraituz, Ikasleak Onartzeko Bermeen Lurralde Batzordea eratu da, ikasleak onartzeko prozesua ikuskatzeko eta ikasleak onartzeko araudia betetzen dela bermatzeko. Batzorde horretan, BAIKARAK parte hartuko du, Gipuzkoako eskola publikoko gurasoen ordezkari gisa.

Martxoaren 14an, lehenengo bilera egin zuen Batzordeak, eta honako erabaki hauek hartu zituen: hiru udalerritan (Hondarribia, Beasain eta Azkoitia), beren udalerria eragin eremu bakartzat hartuta, eta herri horietako ikastetxeetan izena emateko eskariak barematzea beharrezkoa izanez gero, udalerrri horietan bizi diren familiei bost puntu egokituko dizkiete, eta inguruko herrietan bizi diren familiei, berriz, bakar bat ere ez. Hernanin, aldatu egingo da Ereñozuko Txirrita LHiren eragin eremua; eta, azkenik, B ereduan eskolatutako Intxaurren Hegoa LHI ikastetxeko ikasleek Usandizaga-Peñaflorida BHI osatuko dute DBHko ibilbidea, eta Lauaizeta BHI osatuko dute, aldiz, D ereduan eskolatutako ikasleek.

Batzorde horrek aurrera begira egingo dituen bilerei dagokienez, litekeena da eskualde bilera batzuk egitea, Gipuzkoako eskualdeetan matrikulazio garaian sortu ohi diren arazoak aztertzeke. Argitu beharra dago Batzordearen jardura esparrua ohiko matrikulazio prozesua dela; beraz, ohiko matrikulazio alditik kanpoko matrikulazioen gorabeherak ez dagozkio talde horri, horretarako bereziki sortuak diren Eskolatzeko Batzordeei baizik.

Batzordeak matrikulazio garaian sortutako gorabeheren izan dezan, gorabeheraren baten berri duten IGEei horiek lehenbailehen Federazioari jakinaraztea eskertuko genieke.

3.- ESKOLA ORDUTEGIAZ ETA JARDUNALDIAZ

Litekeena da azken egunotan, eta, nagusiki, hedabideen bitartez, eskola ordutegiari eta jardunaldiari buruzko zenbait proposamenen berri jaso izana, Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez bereziki.

Gai horri dagokionez, EHIGE Konfederazioko kide diren euskal eskola publikoko guraso federazioak eztabaida egiten ari gara, eskola publikoko ikasleen ordutegiari buruzko proposamenak egin eta, gure ikuspegitik, ikastetxeetan gure seme-alabei arreta hobea eman diezaieten lortzeko. Ikasketa ez-unibertsitarioak egiten ari diren ikasle guztien ordutegia eta jardunaldiaren azterketa orokorra egiteaz gainera, hiru gai nagusi eztabaidatzeko asmoa dugu:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanaldia; gure ustez, beharrezkoa da zenbait aldaketa egitea. Gaur egun, irakasle horiek astetan 30 ordutan aritzen dira ikastetxearentzat zuzenean lanean; ordu horietako 23, egonaldi arruntekoak dira (17 eskola ordu, eta 6 ordu, zaintzarako, familien arretarako,

departamentuen bileretako, etab.). Gainerako zazpi orduak ez dira ikastetxean nahitaez igaro beharrekoak. Eta, hain zuzen ere, nahitaezko egonaldikoak ez diren ordu horiek ikastetxean igaro beharrekoak izan daitezzen eskatzeko aukera aztertzen ari gara Federazioetan, horrek ikasleei begirako arreta hobetuko lukeelakoan.

- Batxilergoko 1. mailako ikasleen eskola egutegia laburregia iruditzen zaigu. Maiatzaren 20rako amaituta eduki behar dituzte eskolak, eta maiatzaren 21etik 30era bitarteko egunak azken probak prestatzeko, ebaluazioak egiteko, notak banatzeko eta balizko erreklamazioak bideratzeko erabiltzen dira. Eskolak maiatzean amaitzeko arrazoa Batxilergoko 2. mailan ere garai horretan bukatzen dituztela da; 2. mailakoek selektibitateko azterketak egiten dituzte ekaineko bigarren astean, eta eskolak maiatzean amaitu beharrean daude, errekonferentzia azterketak egin eta selektibitatea prestatzeko egun batzuk edukitzeko. Baina, gure galdera hau da: zergatik ezin da luzatu 1. mailako egutegia, maila horretako ikasleek ez badute, berez, hain goiz amaitzeko inolako beharrik, ez badute selektibitate azterketarik? Horixe proposatuko diogu, hain zuzen ere, Hezkuntza Sailari: Batxilergoko 1. mailako ikasleen eskolak ekainean amaitzea, eta ez maiatzean, orain bezala.
- Euskal curriculum berriko erlijio eskoletarako orduak, nahitaez eskaini beharreko eta hautazko ikasgaia izanik: Lehen Hezkuntzan, astean ordu eta erdi eman behar zaizkio erlijioari, gutxienez; eta Bigarren Hezkuntzan, astean bost ordu, gutxienez, DBHko lehenengo hiru mailetan, eta astean ordubete, laugarren mailan. Eskola publikoko gurasoen federazioak ez gaude batere ados erlijioa eskola orduetan eskaintzarekin, eta eskola ordutegitik kanpo ematea proposatzen dugu. Hori hori aldarrikatzeko eta eskola publiko laikoaren aldeko kanpaina egingo dugu.

Eskola ordutegiari eta jardunaldiari buruz gai horiek eztabaidatzen eta aztertzen ari ginela, jakin dugu Arabako ikastetxeetako zuzendariak jardunaldi jarraitua egitea proposatu dutela; 8:00etatik 14:00etarako jardunaldi jarraitua egitea, eta arratsaldean eskola orduz kanpoko jarduerak egitea, hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan. Oraindik ez ditugu eskuratu proposamen horren xehetasun guztiak, baina argi adierazi nahi dugu BAIKARAN ez dugula gai hori eztabaidatuko hainbat alderdi argi eta objektiboki azaltzen ez dizkiguten bitartean, adibidez, jardunaldi jarraitua egiteak ikasleei zer onura ekarriko dizkien, alderdi pedagogikotik nahiz eskola alderditik, jardunaldi etenarekin alderatuta. Eta, bestalde, oraindik babesten ez dugun argudio hori objektiboki egiaztatzen bada, norik antolatu, kudeatu eta finantzatzeko lituzke ikasleak arratsaldean ere eskolan aritzeko aukera emango luketen eskola orduz kanpoko jarduerak? Orain arteko esperientziak ikusita, erantzukizun hori IGEen esku geldituko litzateke, beste behin ere, eta, beraz, oraingoan, eta proposamen argi eta zehatzagoa egiten ez diguten bitartean, eskola jardunaldia aldatzeko asmo horren kontra gaude.

Eskola ordutegiari eta jardunaldiari buruzko gai horiek Zuzendaritza Batzordean eta eskualde bileretan eztabaidatuko ditugu, maiatzean.

4.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERA

Apirilaren 16an, asteazkenean, 18:30ean, Baikararen Zuzendaritza Batzordearen bilera egingo da, Urretxuko Jose M^a Iparragirre Institutuan. Bilera horretan, informazio orri honetan aipatutako gaiak sakontzeaz gainera, intereseko beste gai batzuk ere aztertuko dira. Gogorarazi nahi dizuegu Batzordearen bileretan IGEen edozein ordezkari parte har dezakeela.

Baso – Txiki, 36 – atzealde . 20015 Donostia

E-Mail: baikara@baikara.org

Tel: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: www.baikara.org